

UDALBURUA
Josu Artetxe

AIARAKO UDALAK 2014ko AZAROAREN 20an EGINIKO
OHIKO BILERAREN AKTA

ZINEGOTZIAK

Lauren Uria
Esteban Hernando
Aitziber Álava
Garbiñe Alaña
Julio Etxaurren
Esmeralda Martínez
José Antonio Bartolomé
Iratxe Parro
Iraida Sáenz de Lafuente
José Luis Pedruzo

Arespalditzan, udaletxeko bilkuren aretoan, bi mila eta hamalauko azaroaren hogeian, hemeretziak direnean, Udalbatza Osoa bildu da ohiko bilera egiteko. Josu Artetxe Arana alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedaturikoaren arabera. Neuk, Naiara Lazpita Marcos idazkari andreak, lagundu ditut eta ekitaldiaren fede eman dut.

Jarraian, eguneko aztergaien zerrendan dauden gaiak jorratu dira.

IDAZKARIA

Naiara Lazpita

Alkate jaunak arratsalde on esan eta Udalbatzaren bilkurara ongi etorria eman die guztiei.

Ondoren, Eguneko Aztergaien Zerrendan gaineratutako puntuak jorratu dira.

1.- Onestea, bidezkoa bada, 2014ko azaroaren 3an eginiko ohiko bilkuraren akta.

Garbiñe andreak (EAJ) aipatu du ez dela eskarien eta galderen atalean jaso Etxegoiengo putzuaren espedienteari buruz esan zuena. Horren bidez, aparejadoreak txostena egitea eskatu zuen, eta Josu jaunak erantzun zuen ez zegoela eskatzeko oztoporik.

Horren inguruko beste ezer aipatu ez denez, gaia bozkatu da, eta aho batez onetsi da.

2.- Onestea, bidezkoa bada, Udalaren eta Asociación Cultural Amigos de Etxaurren-Etxaurreneko Lagunak Elkartearen arteko 2014ko lankidetzaz hitzarmena.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatza Osoko kideek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide,

HONAKO HAU IKUSI DA.- Aiarako Udalak sustatu eta babestu nahi dituela udalerrian antolatzen diren kultura- eta jai-adierazpenak.

HONAKO HAU IKUSI DA.- Aiarako Udalaren eta Asociación Cultural Amigos de Etxaurren-Etxaurreneko Lagunak Elkartearen arteko lankidetzaz hitzarmenaren xedea da Etxaurreneko ermita dela-eta irailean antolatzen diren jaiak sustatu eta indartzea.

HONAKO HAU IKUSI DA.- Kultura, Kirola eta Gazteria Informazio Batzordeak 2014ko urriaren 21ean emaniko aldeko irizpena.

Udalbatza Osoak honako hau **ERABAKI DU** aho batez:

Lehenengoa.- Onestea Aiarako Udalaren eta Asociación Cultural Amigos de Etxaurren-Etxaurreneko Lagunak Elkartearen arteko lankidetzaz hitzarmena, Etxaurreneko ermita dela-eta irailean antolatzen diren jaiak sustatu eta indartzea xedea duena.

Bigarrena.- Alkate-udalburuari ahalmena ematea, hitzarmena sina dezan.

Hirugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea Asociación Cultural Amigos de Etxaurren-Etxaurreneko Lagunak Elkarteari; halaber, hitzarmenaren bi ale helaraziko zaizkio, horietako bat behar bezala sinatua itzul dezan.

3.- Onestea, bidezkoa bada, azaroaren 25a, emakumeenganako indarkeriaren aurkako eguna dela-eta egindako erakunde-adierazpena.

Josu jaunak (BILDU) aipatu di erakunde-adierazpenen bi proposamen daudela: Eudelek zabalduak eta BILDU taldeak aurkeztutakoak.

Udalbatzako gainerako kideek adierazi dute interesa dutela Eudelek hedatutako adierazpen-proposamena onesteko. Hori dela eta, Lauren jaunak (BILDU) esan du Bilduk aurkeztutako proposamena kenduko dutela; dena den, Bilduren proposamenak konpromiso handiagoa exijitzen zuen genero-indarkeriaren aurka.

Iratxe andreak (AB) esan du iaz Bildurena onetsi zela, baina gero ikusi da ez dela konpromisorik gauzatu; hortaz, ez du merezi konpromiso gehiago exijitzen dituzten mozioak onestea, gero ez direlako betetzen. Horrenbestez, bere taldeak nahiago du Eudelena onestea.

Lauren jaunak erantzun du urtean zehar ekintza-programa egin dela borroka horretarako, eta saiatzen direla hartzen dituzten konpromisoak gauzatzen.

Besterik eztabaidatu ez denez, Eudelek proposatutako erakunde-adierazpena bozkatu dute, eta aho batez onetsi dute.

“AZAROAREN 25eko ERAKUNDE ADIERAZPENEA: Emakumeenganako indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna.

Azaroaren 25a ‘Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna’ da. Hori dela eta, AIARA-AYALako Udalak bere gaitzespen irmoa erakusten du indarkeria sexistako agerpen-mota guztien aurrean; izan ere, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunen emaitza dira.

Eraso eta portaera sexistak ez dira indibiduo batzuen jarrera isolatuak, ezpada mundu osoan indarrean dagoen sistema baten parte. Sistema horren bitartez, emakumeen indarkeria ahalbidetzen da, haurtzarotik hasi eta euren bizitza osoan zehar. Hainbat neurritako jarduera oldarkor eta matxistak dira, baina denek egiten diete eraso –zuzenean edo zeharka– emakumeen osotasunari, askatasunari eta gaitasunari. Zoritxarrez, oraindik ere, emakumeen aurkako erasoak baimentzen eta legitimatzen dituzten jarrera eta portaera ugari antzematen dira gizartean; esate baterako, erasoak jasan dituzten neskek eta emakumeek jarritako salaketen egiazkotasuna zalantzan jartzea, botere-espazioetatik indarkeria hutsaldu eta justifikatu nahian eta gaiari garrantzia kendu nahian egiten diren adierazpen publikoak, edo komunikabide batzuek indarkeriari ematen dioten tratamendu azaleko eta sentsazionalista, besteak beste.

Erakunde publikoek gure jardueraren erdigunean jarri behar dugu indarkeria sexistaren mota oro errotik suntsitzeko ahalegina. Horretarako, beharrezkoa da programa egonkor eta jarraituak garatzea, indarkeriarik gabeko gizartea lortu ahal izateko. Era berean, programa horiek baliabide ekonomiko eta pertsonalez hornitu behar dira.

Indarkeria-mota guztiak desagerrarazteko gure konpromiso aktiboan, gure herriko neska eta mutil gazteekin indarkeria sexista prebenitzeko lanaren aldeko apustu irmoa egiten dugu; izan ere, herri honetan indarkeria matxistak duen eragina arduratzen gaituen errealitatea da. Hori dela eta, aurten ere, jende gaztearekin lan egiten jarraitzen dugu, Beldur Barik programaren markoan.

Erakunde publikoek arlo horretan garatu eta sendotu behar ditugu berdintasun-politika publikoak, Berdintasun Sailen gidaritzapean, eta Hezkuntza eta Gazteria Sailetatik ere politika estrategikoekin indarrak batzeko ahaleginean. Hori guztia, indarkeria sexista prebenitzeko Beldur Barik programaren markoan, betiere, helburu nagusi batekin: esparru guztietatik, emakume gazteen jabeakuntza ahalbidetuko duten eta desberdintasun- eta indarkeria-egoeren aurrean erantzuteko duten gaitasuna sustatuko duten politikak garatzea. Politika horiek, era berean, lana eta gogoeta sustatu behar dute mutilekin, euren protagonismoari eta indarkeria matxistan duten erantzukizunari buruz, eraso zer den eta zer ez identifikatzeko dituzten zailtasunei buruz, erasoetan daukaten parte-hartze aktiboari buruz edo eraso baten aurrean ikusle pasibo gisa hartzen duten paperari buruz.

Beldur Barik estrategia hauetan egingo den lanari esker, indarkeria onartzen duten, indarkeria justifikatzen duten edo erasoak eta emakumeenganako jarrera diskriminatzaileak hutsaltzen dituzten diskurtsoak onartuko ez dituen eta naturalizat hartuko ez dituen gizartea eratzen joango da.

Hori guztia dela eta, AIARA-AYALako Udalak konpromisoa hartu du:

- *Beldur Barik programaren edukiak garatzeko, gazteak indarkeria matxistaren gainean sentsibilizatu eta hura prebenitzeko moduak lantzeko tresna gisa.*
- *Bere eskumenen esparruan eta indarreko legeria aplikatuz, berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako udal-politika aktibo, integral eta koordinatua garatzeko.*

Eta, era berean, herritarrei gonbit egiten die konpromiso pertsonalak eta kolektiboak hartzeko, emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasunaren alde, baita edozein indarkeria edo diskriminazio sexista/matxista gaitzesteko ere.

Azkenik, gonbit egiten dizue, bereziki neska-mutil gazteei, azaroaren 25ean, 'Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna' dela-eta izango diren ekitaldietan era aktiboan parte hartzera.

4.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udalak familiei laguntzak ematea arautzen duen Ordenantza, Euskal Autonomia Erkidegoko udalen kiroldegietako bazkide-kuotak (banakakoak edo familienak) ordaintzeko.

Garbiñe andreak (EAJ) eskatu du ordenantza mahai gainean uzteko eta gogoeta egiteko, musika- eta dantza-eskolak egitea diruz laguntzen duen beste ordenantza bat dagoelako, eta mugakide diren udalerrri batzuetarako baino ez zen onetsi. Hala, irizpide ezberdinak daude diru-laguntza antzekoetarako. Era berean, eskatu du Udalari ekarriko dion kostuaren berri emateko. Ea zein partida sartu beharko den aurrekontuan, 2015ean.

Lauren jaunak (BILDU) esan du gobernu-taldearen asmoa udal mugakideetara mugatzea zela, baina ABk Batzordean planteatu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko udalerririko guztietara hedatzea, eta eztabaidaren ondoren, denek onartu zuten.

Garbiñe andreak (EAJ) esan du ordenantza bat-batean egin dela iruditzen zaiola, asmoa zelako hitzarmena egitea Amurrioko Udalarekin, baina azkenean ez zen egin; izan ere, gobernu-taldea berandutu zen Batzordean hartutako erabakia helaraztean.

Lauren jaunak (BILDU) onartu du berandutu zirela, baina Amurrioko Udalak ez zuen halako erabakirik itxi batzorde batean, eta haiekin hitz egitera joan zirenean, adierazi zuten esleipenagatik lotuta zeudela. Jarraian, Lauren jaunak esan du ordenantzaren zirriborroa helarazi zela, denbora eman zela ekarpenak egiteko, eta azkenik, bildu ziren Batzordean eztabaidatu ostean.

Iratxe andreak (AB) aipatu du egia dela onesten diren ordenantza guztiek irizpide berberak izan behar dituztela.

Lauren jaunak erantzun du bi ordenantza ezberdin direla. Musika eta dantza diruz laguntzeko ordenantza berrikus daiteke, eta beste irizpide batzuk adostu. Baina hori beste ordenantza bat da.

José Antonio jaunak (EAJ) aipatu du harrিতa geratu dela; izan ere, musika eta dantza diruz laguntzeko ordenantza eztabaidatu zenean, EAJk proposatu zuen udalerrri gehiagoetara zabaltzea. Batzordean eztabaidatu zen, eta Bilduko gobernu-taldeak esan zuen asmoa eskualdeko jarduerak kohesionatzea zela, baina orain, sei hilabete geroago, irizpidea ezberdina da. Ez da aldea ulertzen.

José Luis jaunak (PP) esan du zehatzago jakin beharko luketela zenbat kostatuko den.

Josu jaunak (BILDU) adierazi du muga beti izango dela urterik urte onesten den aurrekontu-partida.

Iratxe andreak (AB) aipatu du bere taldea ordenantza onestearen alde dagoela, baldin eta gobernu-taldeak musika eta dantza diruz laguntzeko ordenantza berrikusteko konpromisoa hartzen badu, irizpideak parekatzeko.

Lauren jaunak (BILDU) baietz esan du, ordenantza berrikusteko konpromisoa hartzen dutela, partida horretan ez baita inoiz dirurik sobera egon eskatutako diru-laguntza guztiak emandakoan.

Ez da besterik aipatu, eta beraz, gaia bozkatu dute. Hala, kideek aho batez onetsi dute.

Eta hori dela bide,

HONAKO HAU IKUSI DA.- Udalak beharrezkotzat jo du familiei laguntzak ematea arautzen duen Ordenantza egitea, Euskal Autonomia Erkidegoko udalen kiroldetgetako bazkide-kuotak (banakakoak edo familienak) ordaintzeko.

HONAKO HAU IKUSI DA.- Gizarte Ongizatea, Berdintasuna, Immigrazioa, Funtzio Publikoa eta Langileak Informazio Batzordearen 2014ko azaroaren 18ko aldeko irizpena.

Udalbatzak, aho batez, **ERABAKI DU:**

Lehenengoa.- Hasieran onestea Aiarako Udalak familiei laguntzak ematea arautzen duen Ordenantza, Euskal Autonomia Erkidegoko udalen kiroldetgetako bazkide-kuotak (banakakoak edo familienak) ordaintzeko.

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai egoteko 30 laneguneko epea irekitzea, erabakia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan, edozein interesdunek

aurkeztu ahal izango ditu bidezkoztat jotzen dituen alegazioak. Hasiera bateko onespeneraren inguruko alegaziorik aurkezten ez bada, hasiera batean onetsitako erabakia behin betikotzat jo eta testu osoa ALHAOn argitaratuko da.

Hirugarrena.- Erabaki hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

5.- Alderdi Popularra udal-taldeak aurkeztutako mozioa, baliabide ekonomikoak Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeen artean banatzea arautzen duen Ekarpeneren Legea dela eta.

José Luis jaunak (PP) mozioa irakurri du; akta honi erantsi zaio **I. ERANSKIN** gisa.

Josu jaunak (BILDU) esan du ez daudela Ekarpeneren Legearen aurka, baina uste dute modu zabalagoan egin behar dela. Talde guztiek zuzenketa aurkeztu dute mila milioiko edo hortik gorako kupoaren kalkuluan egiten ari diren deskontuak berrikusteko, Madrilgo Gobernuak bere kabuz erabaki du eta.

Josu jaunak (BILDU) idatzia irakurri du (akta honi **II. ERANSKIN** gisa atxiki zaio). Arabako Biltzar Nagusietan aurkeztu dute, eta besteak beste, Ekarpeneren Legeaz dihardu. Hori dela eta, bere taldea abstenituko da.

Besterik esan ez denez, gaiari buruzko bozketa egin da eta hau izan da bozketaren emaitza:

Aldeko botoak: 1 PP

Abstentzioak: 10 (4 BILDU - 4 EAJ - 2 AB)

Horrenbestez, mozioa onetsi da, eta Eusko Jaurlaritzari igorriko zaio.

6.- Onestea, bidezkoa bada, Aiaraldea Gure Hezkuntza plataformak aurkeztutako “Lomcerik Gabeko Herria” mozioa.

Josu jaunak (BILDU) mozio hau irakurri du:

"LOMCErik GABEKO HERRIA.

Hezkuntza eskubide unibertsala da, pertsona ororen eskubidea.

Administrazioaren betebeharra da eskubide unibertsal hori bermatzea, eta era berean, gizartearen erantzukizuna da eskubidea erabat betetzen dela zaintzea.

Eskubide unibertsala denez, hezkuntzak pertsona ororen garapena ziurtatu behar du, hezkuntza parte-hartzailea, askatzailea, hezkidetzakoa, inklusiboa, demokratikoa, plurala, integratzailea...

Hala ere, LOMCEren erreforma dela eta, hezkuntza beste norabide bat hartzen ari da, eta kontrako noranzkoa hartu du.

LOMCEk oinarrizko eskubide hori urratzen du, eta horrexegatik agertu da aurka hezkuntza-komunitatea; izan ere, eskola inklusiboa baztertzen du, autoritarioa eta baztertzailea da, euskara eta euskal kultura heriotzara zigortzen ditu, familiek eta herritarrek parte hartzearen aurkakoa da, erlijioa inposatzen du, ikasleen berezitasunetatik urruti dagoen hezkuntza inposatu nahi du, merkataritza-sistemaren beharrei erantzun nahi die, eta askoz arrazoi gehiago daude.

LOMCE hezkuntza-eskubidearen aurkako eraso argia da, horren oinarrizko printzipioen aurkakoa da, eta inposatu nahi da gizartearen gehiengoaren nahiaren kontra. Hezkuntzari egiten dio eraso, guztion eskubide gisa. Eta eraso administratioarena denez (halaxe ukatzen du eskubide hori ziurtatzeko zeregina), guztion erantzukizuna da eskubide hori defendatzea.

Horren guztiaren harira, hainbat taldek eta plataformak bat egin dugu eta LOMCERik Gabeko Herria ekimena gauzatu dugu.

LOMCERik GABEKO HERRIA aurrera eraman nahi da hezkuntza-komunitateko norbanakoen eta kolektiboen konpromisoei esker. Xedea da hala gelak nola ikastetxeak LOMCERik gabeko guneak izatea, komunitate horretako kideek hartzen dituzten erabakiak abiapuntu izanik.

Beste alde batetik, LOMCERik GABEKO HERRIA dinamika EAerako hezkuntza-sistema propioa eraikitzearen aldekoa da, hezkuntza-eragile gehienek aldarrikapenarekin bat etorritik.

Horregatik guztiagatik, Aiaraldea Gure Hezkuntza plataformak mozio hau aurkeztu dio Udaltzari, eztabaida eta onets dezan:

- 1. Udala LOMCE hezkuntza-erreformaren aurka dago; izan ere, hezkuntza oinarritzko eskubidearen aurkako eraso bat da.*
- 2. Udalak konpromisoa hartu du indar aktibo izateko zein dauden neurri guztiak sustatzeko honako alderdi hauek dituen Hezkuntza Propioa bat garatze aldera:*
 - 1. Ikasleen garapena, eskubideak eta beharrak bermatuko duen hezkuntza oso bat izateko behar diren baliabide guztiak dituen (pertsonez, inklusiboa, hezkidetzailerik, kritikoa, laikoa...)*
 - 2. Ikasle euskaldun eleaniztunak sortuko dituen*
 - 3. Curriculum propioan oinarritua*
 - 4. Funtzionamendu demokratikoa eta parte-hartzailea bermatuko dituen eta ikastetxeek euren autonomia izatea.*
 - 5. Euskal Herriko hezkuntzarako esparru arauemaile propioa bat babesten duena*
- 3. Udalak konpromisoa hartu du indar aktibo izateko zein dauden neurri guztiak sustatzeko ikastetxeetan LOMCE ezarri ez dadin, honako alderdi hauek kontuan hartuta:*
 - 1. Hezkuntza-komunitate osoa arduratuko da ikastetxeen kudeaketaz, funtzionamendu eta kudeaketa demokratikoa bermatze aldera.*
 - 2. Euskara izango da hezkuntzaren ardatza, ikasle euskaldun eleaniztunak osatzeko.*
 - 3. Ikaslea izango da ikasketa-prozesuaren subjektu aktibo nagusia eta bere eskubideak izango ditu.*
 - 4. Ikasleak sailkatzea eta antolatzea saihestuko da, aukera-berdintasuna bermatzeko. Horrez gain, saihestu egingo da ibilbide orokorretan aldeztu ezarritako emaitza akademikoak (oinarritzko prestakuntza profesionala) lortu ez dituzten ikasleak ikastetxetik kanporatzea. Irakasleek egindako ebaluazio jarraitua hartuko da kontuan dagozkion ondoretarako, eta ez LOMCEk ezarritako ebaluazioak.*
 - 5. Salatu egingo da eta saihestu LOMCEk ezarritako ebaluazioen emaitzak jakitera ematea*
 - 6. Ahalbidetu egingo da curriculum propioa izatea irakasleen lanerako tresna*
- 4. Udalak bere egiten ditu LOMCERi aurre egiteko hartutako konpromisoak, maila pertsonalari zein garapen kolektiboari dagokionez, eta, hala, babestu egiten du LOMCERik GABEKO HERRIA dinamika eta onartu egin du Aiara LOMCERik gabeko herria izendatzeko proposamena. Hori herritarrei jakinarazteko, dagokion bandoa igorriko die udalerriko ikastetxeei 2014-2015 ikasturte hasieran.*

Inork ez du horri buruzko ezer esan; beraz, gaiari buruzko bozketa egin da eta hau izan da bozketaren emaitza:

Aldeko botoak: 10 (4 BILDU + 4 EAJ + 2 AB)

Abstentzioak: 1 PP

Ondorioz, gehiengoz onetsi da mozioa.

- **Eguneko aztergaien zerrendako hurrengo puntuekin jarraitu baino lehen, eguneko aztergaien zerrendan premiazko puntu bat sartzea proposatu da, hain zuzen, EAJ-PNV udal-taldeak aurkeztutako mozio bati buruzkoa.**

Larrialdiko bozketa egin da puntu eguneko aztergaien zerrendan sartzeko, eta azkenean kideek aho batez onetsi dute.

Horrenbestez, honako puntu hau eztabaidatu da.

7.- Onestea, bidezkoa bada EAJ-PNVk aurkeztutako mozioa, Aiarako Udalak diru-laguntzak emateko eskolako jangelaren diru-laguntzarik ez duten familiei eskolako garraioa ez dutelako.

Garbiñe andreak (EAJ) honako mozio hau irakurri du:

“Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin akordio bat lortzeko ahaleginak gorabehera, ikasturtean zehar Aiarako hainbat familiak ez dute garraiorik derrigorrezko hezkuntzako euren seme-alabentzat.

Garraio falta horrek ahalegin ekonomiko bat dakar; izan ere, eskolako jangelari dagokion diru-laguntza ere ez dute jasotzen.

Aiarako Udalak Aiarako herritarren artean dauden desberdintasunak konpontzeko betebeharra du, nahiz arazoa beste instituzio publiko batzuegatik izan (kasu honetan bezala) ez dakizkitelako gure udalerraren ezaugarri bereziak edo gure Udalaren kudeaketagatik izan.

Horregatik guztiagatik, EAJ-PNVk honako mozio hau proposatu du, bozka dadin:

Aiarako Udalak bere aurrekontuetako partida ekonomiko bat bideratuko du, desberdintasun horrek jarraitzen duen heinean, ikasturte hasieratik eskolako jangelarako diru-laguntzarik ez duten familiei ekonomikoki laguntzeko.

Diru-laguntzaren zenbatekoa eskolako garraio eskubidea izanda jasoko luketen zenbateko bera izango da.

Lauren jaunak (BILDU) esan du jada hitz egin dela gai horri buruz, eta Udalak ezin duela bere gain hartu berari ez dagokion eskumenik. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila da eskolako garraioari eta jangela bere gain hartzeari edo diruz laguntzeari dagokionez bere funtzioak utzi dituen, eta paradoxikoa da EAJ izatea mozio hau aurkeztu duena, eurak baitira Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila kudeatzen dutenak eta murrizketan egiten dituztenak. Ausardia izan behar da mozio hau aurkezteko.

Josu jaunak (BILDU) adierazi du Udalak Etxaurren Ikastolarekin, Zaraobe Institutuarekin eta Okondoko Udalarekin batera Hezkuntza Sailera bertaratzeko ekimena izan duela.

Sei aldiz deitu zaio, eta ez da erantzunik izan. Azaldu du horrelako pauso bat eman baino lehen Eusko Jaurlaritzaren erantzunari itxaron behar zaiola. Erantzukizuna erantzukizuna duenarena da eta uste dute bilerak izan behar direla eraginpean daudenekin eta ikastolarekin, ikusteko zein harrera duen proposamenak.

Garbiñe andreak esan du udatik ibili direla proposamen honetaz hizketan. Denbora nahikoa egon da eraginpean dauden familiekin hitz egiteko. Azaldu du, 3.000 eurori buruz ari direla, eta familia batek ez badu diru-laguntza nahi, badaukala ez eskatzea. Eta laguntza edo diru-laguntza hau emateak ez du esan gaia konpontzeko pausoak ematen jarraituko ez denik. Aiarako EAJk Aiarako herritarren interesen alde egiten du; horregatik proposatu da mozio hau.

Lauren jaunak (BILDU) esan du arazoa ez direla 3.000 euroak, arazoa da Udalak Eusko Jaurlaritzari dagozkion eskumenak bere gain hartzen dituela, eta Eusko Jaurlaritzak erabaki du gai honetan murrizketak egitea. Udala bere gain hartzen hasten bada, azkenean familiek galduko dituzte eskubidea, Eusko Jaurlaritzak ez baititu bere gain hartuko.

Azkenean, gaia mahai gainean uztea erabaki dute, bozketarik egin gabe.

- **Jarraitu baino lehen, eguneko aztergaien zerrendatik kanpo beste puntu bat sartzea proposatu da, hain zuzen, Julio Echaurren jaunak Aiarako Udaleko zinegotzi karguari uko egiteari buruzkoa.**

Larrialdiko bozketa eginda eguneko aztergaien zerrendan sartzeko, eta udalbatzako kideek aho batez onetsi dute. Ondorioz, honako hau da puntua:

8.- Onartzea Julio Echaurren Moroy jaunak Aiarako Udaleko zinegotzi karguari uko egitea.

Garbiñe jaunak (EAJ) eskerrak eman nahi dizkio Julio Echaurren jaunari eguneko lanagatik eta haren laguntasunagatik, arduragatik, leialtasunagatik eta erabaki hau hartu izanagatik jakinda ezingo dela erabat lanean aritu.

Josu jaunak ere (BILDU) eskerrak eman dizkio Juliori emandako zerbitzuagatik, eta espero du ebakuntzan gauzak ondo ateratzea.

Eta hori dela bide, eta

IKUSI DA.- Julio Echaurren Moroy jaunak 2014ko azaroaren 20an aurkeztutako idazkia. Horren bidez, Udalarari adierazten dio uko egin nahi diola Aiarako Udaleko EAJ-PNVko zinegotzi karguari.

Udalbatza Osoak honako hau **ERABAKI DU** aho batez:

Lehenengoa.- Onartzea Julio Echaurren Moroy jaunak Aiarako Udaleko EAJ-PNVko zinegotzi karguari uko egitea.

Bigarrena.- Ebazpen hau hauteskunde-batzorde zentralari jakinaraztea eta eskatzea izenda dezala eta dagokion kredentziala bidal dezala 2011ko Udal Hauteskundeetako EAJ-PNV alderdi politikoaren zerrendan dagoen hurrengoaren alde.

Jarraian, eguneko aztergaien zerrendako hurrengo puntuekin jarraitu da.

9.- Honako hauen berri ematea:

- **2014ko ekaineko, uztailleko, abuztuko eta iraileko Zenbaketaren Aktak.**
- **2014ko ekaineko, uztailleko, abuztuko eta iraileko gastuen eta diru-sarreraren balantzea.**
- **2014ko ekaina eta iraila bitarteko (biak barne) kartillen egoera.**
- **2014ko ekaineko, uztailleko eta abuztuko kreditu-aldaketak.**

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

10º.- Alkatetza-dekretuak:

- **Erref.- 423/14.- Autocares de Zalla, SL.-** 2014-2015 ikasturtean zehar eskolarako garraio erregularra baimentzea.
- **Erref.: 424/14 JPUI-** Obrarako Udalaren lizentzia ematea, Llantenon dagoen etxebizitza bateko estalkia teilaberritzeko.
- **Erref.- 425/14.- Axpo Iberia, SL.-** 2014ko hirugarren hiruhilekoan jabari publikoa okupatzeagatiko tasa likidatzea.
- **Erref.- 426/14.- Naturgas Energia Comercializadora, SAU.-** 2014ko hirugarren hiruhilabetekoan gasa dela eta lurzorua okupatzeagatiko tasa likidatzea.
- **Erref.- 427/14.- Naturgas Energia Comercializadora, SAU.-** 2014ko hirugarren hiruhilabetekoan elektrizitatea dela eta lurzorua okupatzeagatiko tasa likidatzea.
- **Erref.- 428/14.- Naturgas Energía Distribución SAU.-** 2014ko hirugarren hiruhilekoan elektrizitatea dela eta lurzorua okupatzeagatiko tasa berria likidatzea.
- **Erref.- 429/14.- Alkatetzak 6/2014 kredituak gaitzeko espedientea**
- **Erref.: 430/14.- MLI.-** Agiri gehiago aurkezteko eskatzea.
- **Erref.: 431/14.- AJEB.-** Obrarako Udalaren lizentzia ematea, Llantenon dagoen etxebizitzaren estalkia konpontzeko.
- **Erref.- 432/14.- JAV.-** Udalaren lizentzia ematea Menoion dagoen lursailean negutegia instalatzeko.
- **Erref.- 433/14.- JLR.-** Obrarako Udalaren lizentzia ematea Luiaondon dagoen etxebizitzako garajeen paretak zarpiatu eta zuritzeko eta baldosak jartzeko.
- **Erref.- 434/14- PMLR.-** Obrarako Udalaren lizentzia ematea eta Zuhatzako Zerraben auzoko putzu septikoa eta araztegira dagoen 4 metroko lotura-tartea baliogabetzeko.
- **Erref.- 435/14.- LUP.-** Luiaondon dagoen eraikin bati erantsitako terrazaren zaharberritze-obrak amaitzea luzatzeko baimena ematea.
- **Erref.- 436/14.- Alkatetzak 7/2014 kredituak gaitzeko espedientea**
- **Erref.: 437/14.- RMQ.-** Menagarain dagoen etxebizitzaren estalkiaren eraberritze-obrak amaitzea luzatzeko baimena ematea.
- **Erref.- 438/14.- POJ-** Obrarako lizentzia ematea Arespalditzan dagoen lursail batean horma bat eraikitzeko.
- **Erref.- 439/14.- Izeria eta Erbiko Administrazio Batzarra.-** 2013ko argiteria publikoaren gastua finantzatzeko diru-laguntza ematea.
- **Erref.- 440/14.- Irabazi asmorik gabeko Alday fundazioa.-** Agiri gehiago eskatzea Aiarako planeamenduaren arau subsidiarioen aldaketaren inguruan, Arespalditzako 2 zenbakiko hiri-lurzoruko sektorea berrantolatzeko.
- **Erref.: 441/14.- OMA.-** Obrarako Udalaren lizentzia ematea, Luiaondoko etxebizitza bateko komuna zaharberritzeko.
- **Erref.- 442/14.-** Amaitutzat ematea Arespalditzan "osasun-kontsultategiko lokala egokitzea" obrarako eta jarduera salbuetsirako lizentziari buruzko espedientea.
- **Erref.- 443/14.- Kulturbide.-** Ikastaroak eta tailerrak emateko zerbitzurako berme moduan aurkeztutako abala itzultzea.

- **Erref.- 444/14.- INBISA SERVICIOS Y MEDIO AMBIENTE, SA.-** Nekazaritzako plastikoak biltzeko zerbitzurako berme moduan aurkeztutako abala itzultzea.
- **Erref.- 445/14.- Onestea F/2014/10 zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.**
- **Erref.- 446/14.- PMSDB.-** Udalaren lizentzia ematea Izorian dagoen landa-finka banantzeko.
- **Erref.- 447/14.- MAP.-** Udalaren lizentzia ematea Zuhatzan dagoen landa-finka banantzeko.
- **Erref.- 448/14.- AGS. Luiaondoko Pandura kaleko 11 zenbakiko Jabeen Erkidegoaren ordezkari gisa.-** Udalaren lizentzia ematea teilaturako sarbidea izateko eskailera instalatzeko.
- **Erref.- 449/14.- MB eta JJPDP.-** Izorian nekazaritzako biltegia irekitzeko lizentzia ematea.
- **Erref.- 450/14.- Arespalditzako Administrazio Batzarra.-** Arespalditzako Erabilera Askotako Zentroaren proiektua idaztea ordaintzeko gastuen % 50eko diru-laguntza ematea.
- **Erref.- 451/14.- Arespalditzako Administrazio Batzarra.-** Arespalditzako Erabilera Askotako Zentroaren obraren zuzendaritza eta ikerketa geoteknikoa ordaintzeko gastuen % 50eko diru-laguntza ematea.
- **Erref.- 452/14.- GTE.-** Obrarako Udalaren lizentzia ematea Izorian dagoen baserria egokitzeko.
- **Erref.- 453/14.- GTE.-** Izoriako landetxearen jarduera aldez aurretik jakinaraztea.
- **Erref.: 454/14.- MJOL eta JBY.-** Agiri gehiago aurkezteko eskatzea.
- **Erref.: 455/14.- MLI.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Olabezarren dagoen etxebizitza baten estalkia konpontzeko.
- **Erref.- 456/14.- JUS.-** Obrarako Udalaren lizentzia ematea Luiaondoko etxebizitza baten terraza iragazgaizteko eta kanpoko itxitura aldatzeko.
- **Erref.- 457/14.- JAZ eta IM.-** Obrarako Udalaren lizentzia ematea Luiaondon dagoen etxebizitza baten inguruan espaloia egiteko.
- **Erref.- 458/14.- CBA.-** Obrarako Udalaren lizentzia ematea Murgan dagoen etxebizitzaren terraza egokitzeko.
- **Erref.- 459/14.- CBA.-** Obrarako Udalaren lizentzia ematea Murgan dagoen etxebizitzaren ondoko larraina egokitzeko.
- **Erref.- 460/14.-** Ekipo informatikoak mantentzeko zerbitzua kontratatzeko baldintza ekonomiko-administratibo eta teknikoen plegua onestea.
- **Erref.- 461/14.- Zuhatzako Administrazio Batzarra.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Zuhatzako hainbat bide konpontzeko.
- **Erref.- 462/14.- AVS.-** Agiri gehiago aurkezteko eskatzea, obrarako lizentzia-eskaeraren inguruan.
- **Erref.- 463/14.-** Aiarako Udaleko mantentze-lanen arduradun eta bulegari plazen barne-promoziorako proben oinarriak eta deialdia onestea.
- **Erref.- 464/14.- VUU.-** Agiri gehiago aurkezteko eskatzea, obrarako lizentzia-eskaeraren inguruan.
- **Erref.- 465/14.- VUU.-** Agiri gehiago aurkezteko eskatzea, obrarako lizentzia-eskaeraren inguruan.
- **Erref.- 466/14.- Aiarako eta Gorobel Mendilerroko Ermandade Batzarra.-** Obrarako Udalaren lizentzia ematea, Menoioko eta Slamantongo herriei dagozkien eta Sierra Salvadara sarbidea ematen duten bideak konpontzeko.
- **Erref.- 467/14.- AGM.-** Irekitzeko jarduera-lizentziaren espedienteari buruzko agiri gehiago eskatzea.

- **Erref.- 468/14.- JAGU.-** Irekitzeko jarduera-lizentziaren espedienteari buruzko agiri gehiago eskatzea.
- **Erref.- 469/14.- JMS.-** Llanenton landa-finkak banantzeko eta eransteko lizentzia ematea.
- **Erref.- 470/14.- MVR.-** Ordaindutako ibilgailuen gaineko udal-zergaren (2014) zati proportzionala itzultzea, turismoari behin betiko baja eman zaiolako.
- **Erref.- 471/14.-RGH.** Ordaindutako ibilgailuen gaineko udal-zergaren (2014) zati proportzionala itzultzea, turismoari behin betiko baja eman zaiolako.
- **Erref.- 472/14.- JCMG.** Ordaindutako ibilgailuen gaineko udal-zergaren (2014) zati proportzionala itzultzea, turismoari behin betiko baja eman zaiolako.
- **Erref.- 473/14.- JBU.-** Obrarako Udalaren lizentzia ematea Izorian dagoen lursail batean harrizko itxitura bat jartzeko.
- **Erref.- 474/14.- Etxaurren ikastola,** ekainean Ondarretako aterpetxera joan ziren haurrak direla eta Udaletxean ingresatu ziren kuotak ordaintzea.
- **Erref.- 475.- Hera Trates, SAU.** 2014ko JEZren likidazioen inguruan egindako erreklamazioari buruzko ebazpena.
- **Erref.- 476/14.- Madariako Administrazio Batzarra-** Irekitzeko lizentzia ematea Madariagako hilerria legeztatzeke eta zabaltzeko jarduerari.

José Luis jaunak (PP) 458/14 eta 499/14 Dekretuetan aipatzen diren obrak non diren galdetu du.

Erantzun zaio Ugarte auzoan direla, 42 eta 43 zenbakietan.

11º.- Galderak eta erantzunak.

- Garbiñe andreak (EAJ) esan du txosten juridiko bat eskatu zela isurketaren eta putzu septikoen baimenen inguruan, eta galdetu du ea egina dagoen.

Josu jaunak (BILDU) erantzun du ezetz.

Garbiñe andreak galdetu du ea eskatu den txosten hori.

Josu jaunak erantzun dio ez dela eskatu. Esan dio horren inguruan egin den jarduera URArekin hitz egitea izan dela, arazoa jorrazteko, eta badirudi prest daudela behintzat pausoak ematen hasteko. Agian txostenarekin gaia konprometitu daiteke. Aiarako egoera konplexua da, eta agian arazoak ekar ditzake baimenen eta isurketaren inguruko txosten juridiko bat igortzeak. URak ezagutzen du isurketa baimentzeari buruzko arazoa, eta gurekin harremanetan jarri behar da, pixkanaka-pixkanaka arazoa konpontzeko.

Garbiñe andreak galdetu du ea bilera ona izan den.

Josu jaunak erantzun du eurak era arduratsu jokatzeko ari direla, badakite-eta zein arazo dagoen.

Garbiñe andreak esan du bilkuren berri izan nahi dutela, nahiz eta ez haietara bertaratu.

- Garbiñe andreak esan du Padura kaleko jabeen erkidegoko idazki bat sartu dela Udalean, eta bideetan hainbat aldaketa egiteko eskatu dute zirkulazioa berriro antolatzeke. Udalak erantzun dio ezin dela ezer egin horri dagokionez, ez dagoelako horretarako aurrekonturik. Galdetu du ea Udalak noiz hartu duen erabaki hori.

Esteban jaunak (BILDU) erantzun du berak bilera batera deitu zituela haiek eta Padura kaleko bideak aldatzeko aukera aztertzen egon zirela. Baina ez zegoen horren inguruko ezer egiteko aurrekonturik. Horrez gain, administrazio batzarreko jendearekin hitz egin zen, eta esan zuten ikertu egingo zutela eta benetan beharrezkoa zen. Beraz, bera behin baino gehiagotan joan da inguruari begiratu bat ematea, eta ez du ikusi horrenbesteko beharrik dagoenik.

Garbiñe andreak (EAJ) adierazi du horrelako idazki bat Udalera iristen denean Batzordean jorratu behar dela eta ikusi ea beharrik badagoen edo ez. Eta benetan baldin badago, aurrekontu partida aterako da, baina denen artean jorratu behar da.

- Garbiñe andreak adierazi du beraiek proposamen bat duela aparkalekuak berrantolatzeko, eta ez dela diru asko behar.

Lauren jaunak (BILDU) azaldu du lehenbizi dagoen beharra aztertu beharko litzatekeela, 30 metrora aparkaleku bat baitago. Beste leku batzuetan behar handiagoa dago.

Josu jaunak (BILDU) esan du proposamena aurkezteko eta Batzorde batean aztertuko dela.

Iratxe andreak (AB) adierazi du aparkalekuen gaia hitz egin zela plan orokorraren bileretako batean, eta herritarren batek esan zuen aparkalekuak bazeudela nahiko gertu.

- Iratxe andreak lan-poltsen inguruan galdetu du, ea nola dagoen espedientea.

Idazkariak erantzun dio iragarkia onartuen eta kanpoan geratutakoen zerrendarekin batera argitaratzea gelditzen dela eta hortik izendatuko dela epaimahaia eta lehenengo azterketarako eguna jarri.

- Iratxe andreak esan du Administrazio Batzarrei obretarako emango zaizkien diru-laguntzei dagokienez, askok eskaera epetik kanpo aurkeztu dutela eta errejidore batzuek esan dutela ez dietela eskatzeko denborarik eman. Iratxe andreak esan du eurek ez dutela arazorik eskaerak epetik kanpo onartzeko.

Amaitzeko, erabaki da eskaera aurkeztu ez duten administrazio batzar guztiei telefonoz deitzea eta epea azaroaren 28ra arte luzatzea.

Jorrazteko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du hogeiak eta hogeia minutu direnean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezen, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hamalauko azaroaren hogeian.

OE
ALKATE-UDALBURUA

IDAZKARIA

Izpta.: Josu Artetxe Arana

Izpta.: Naiara Lazpita Marcos.

ANEXO II

09/10/27/3725

9/10/2014

7.11 11h 50'

Los Grupos Junteros abajo firmantes presentan la siguiente la PROPUESTA DE RESOLUCION TRANSADA a las número 1, 3, 4 y 5 del Grupo Juntero Socialistas Vascos, a la número 4 de Ezker Batua-Berdeak, a la del Grupo Juntero EH Bildu y las del Grupo Juntero EAJ-PNV

- 1.- Las Juntas Generales de Álava se manifiestan en contra de la propuesta anunciada por el Gobierno Foral del Partido Popular de una reforma fiscal e instan al Gobierno de la Diputación Foral a que el incremento de recaudación anunciado por el Diputado General respecto a las previsiones existentes para el año 2014, se destine a la puesta en marcha, junto con el resto de instituciones implicadas, de un Plan para el incremento del empleo y la reactivación económica del Territorio en este mismo ejercicio, y a la defensa de los derechos que garanticen y mejoren el sistema de protección social de Álava.
- 2.- Las Juntas Generales de Álava se reafirman en lo acordado por unanimidad en la Moción 69/2013, de 9 de octubre, sobre el pronunciamiento institucional a favor de las plataformas logísticas intermodales del Territorio Histórico de Álava que pretende optimizar las infraestructuras logísticas ya existentes y disponibles, en especial las de Jundiz-Foronda y Arasur, para que puedan ofrecer servicio al transporte y almacenamiento de mercancías provenientes de las infraestructuras de transporte del entorno: aeropuertos, puertos, ferrocarriles y carreteras, dando así sentido a las inversiones realizadas en los últimos años para mejorar la competitividad del tejido productivo vasco, posicionándose de manera activa frente a las decisiones del Gobierno del Estado que menoscaban o impiden el desarrollo de nuestro Territorio en el ámbito estratégico de las actividades logísticas y de transporte.
- 3.- Las Juntas Generales de Álava instan a la Diputación Foral de Álava a que en un plazo breve de tiempo presente una Norma Foral de incorporación de cláusulas contractuales relativas a la compra pública socialmente responsable en la contratación del sector público foral.
- 4.- Las Juntas Generales de Álava instan al Gobierno de la Diputación Foral a consensuar con los grupos junteros de la Cámara los criterios de modificación de la actual Ley de Aportaciones que reflejen con mayor realidad la situación el Territorio, con el objetivo de lograr un posicionamiento mayoritario del Territorio ante la futura reforma de la citada Ley. Asimismo, instan al Diputado General de Álava a que no utilice, en nombre de Álava, sus juicios y valoraciones personales en lo relativo a esta Ley.
- 5.- Las Juntas Generales de Álava manifiestan su desacuerdo con la imposición unilateral de la cantidad del cupo fijado por el Gobierno de España.
- 6.- Las Juntas Generales de Álava instan a la Diputación de Álava a apoyar presupuestariamente la implantación y uso de energías renovables en el territorio.

Vitoria-Gasteiz, 9 de octubre de 2014


Grupo Juntero Ezker Batua-Berdeak
Ezker Batua-Berdeak Biltzarkide Taldea


Grupo Juntero Socialistas Vascos
Euskal Sozialistak Biltzarkide Taldea


Grupo Juntero EH Bildu
EH Bildu Biltzarkide Taldea


Grupo Juntero EAJ-PNV
EAJ-PNV Biltzarkide Taldea

Grupo Juntero Popular
Popular Biltzarkide Taldea

| | |
|---------------------------|------------------------|
| JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA | |
| ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK | |
| ENTRADA - SARRERA | |
| - 9 OCT 2014 | |
| Nº 9022 | Zbka. Hora 11:50 Ordua |
| Nº Exp. | Esp. Zbka. |
| IDAZKARITZA NAGUSIA | |
| SECRETARÍA GENERAL | |